

EUSKALDUNEN HIZKUNTZAREN HASIKINAK

LINGUÆ VASCONUM PRIMITIÆ



Linguæ Vasconum Primitiæ ezaguna dugun lehen euskal liburu inprimatua da, 1545. urtean argitaratua, Bernat Etxeparek idatzia. Etxeparek lehen euskal idazlea izatearen kontzientzia nabarmena zuen, eta horretaz harro ageri da liburuan, izenburutik bertatik hasita.

Testuak hitzaurrea eta 15 olerki kantuak ditu, behenafarreraz idatziak, euskalki hori herri xeheak erabiltzen zuen bezalaxe baliatuta. Hamabost kantu horiek lau multzotan bildu ohi dira, gaiaren arabera: erlijiozko bi, amodiozko hamar, autobiografiarako eta askatasuna goratzeko bat, eta euskara goresteko bi. Askatasuna goraiatzeko duen poema autobiografikoan, Bernart Etxeparek kontatzen du Bearnon espetxeratua izan zela, Nafarroako erregeari traizio egin izanaren salaketa faltsua jarri ziotelako.

Liburuak ez zuen zabalkunde handirik izan, eta ez zaigu heldu ale bakarra baizik, Parisko Liburutegi Nazionalean gordeta dagoena.

AURKEZPENA

Lau mende eta erdi iragan dira. Etxepareren orduko ametsa: euskara «scriba dayteien lengoage bat», hots, ahozko mintzairatik igan dadin mintzaira idatzira, «nola berce oroc baitute scribatzen beryan».

Bernard Lehete Erregeren abokatu jaunari igortzen dizkio koplak «imprimi erazi diçaçun eta çure escutic oroc dugun ioya ederra imprimituric heuscara orano içan eztena...».

Orduz gero mintzaira idatzia jalgi daiteke Etxepareren oihu famatuari jarraikiz: kanpora..., plazara..., mundura..., mundu guzira... eta azkenik munduko mintzaira idatzien arteko dantzara.

«Kontrapas» delakoaren oihuak badauka «Sautrela»-n bere oihartzuna manu gisa emana: «Heuscaldun den guiçon oroc alcha beça buruya».

Laurehun eta berrogeita hamar urteren buruan hauxe da daukagun hizkuntzarekiko ametsa: gal beza ahalkea eta beldurra, izan dadila, idazleei esker, ausart, entregu, bitore eta beste hizkuntzak bezain aberats eta konplitu.

Idazle izanik ala ez beldurrik gabe, orain ere «euskaldun den gizon orok altxa beza burua».

Jean HARITSCHELHAR
Euskaltzainburua
1995.eko apirilean

HITZAURREA

«En realidad, el parentesco de la obra de Dechepare con ta poesía popular —en espíritu, lenguaje y versificación— salta a la vista»^[1]

Ezagutzen dugun lehen euskal liburu inprimatua Bernard Etxeparek argitara zueneko 450. urteurrena —«*Linguæ Vasconum Primitiæ*», 1545. Bordele— hain urte banabanakoa eta garrantzitsua da euskal hizkuntzaren eta kulturaren historian, non gure Erakundeen, Unibertsitateen eta kultur elkarteen begien aurrean ezin lgaro baitzitekeen hauek omenaldi on bat haren gogoangarrian eskaini gabe; eta egin zitekeen omenaldirik onena haren liburuaren edizio faksimile bat prestatzea zela pentsatu zen, testua mendebaldean gaur egun zabalduenak diren bospasei hizkuntzatarata itzulirik, hala poetaren gogoia burutan ateratzeko: «zeren ladin publiko mundu guzietara berze lengoajiak bezala hain eskribatzeko on dela»^[2].

Bereiz dabilta beren iritzietan Literatur Historiako adituak gure poetari hor zor zaion lekua seinatzeko orduan. Mitxelena «Rabelais euskalduna» deitu zutenekin ez ezik, Berpizkundeko gizontzat hartu zutenekin ere ez dator bat, inprentaganako sentitu zuen lehia gartsuan bakarrik omen delako garai horretakoa. Bat dator, aldiz, horren eta Hitako Artziprestearen arteko antza aspaldidanik ikusi izan dutenekin, eta honen pasarterik hoberenak bezain ontzat dauzka gure poetaren batzuk^[3], Jon Juaristik bere aldetik «*hombre de transición entre la cultura medieval y la renacentista*» deitzen du»^[4].

Berriki agirian jarri du norbaitek gure poetak izan zezakeen harremana Clement Marot (1494-1544), Frantziako poeta handi, Nafarroako erregina Margaritaren hautuarekin. Biak ziren erregeren abokatu Bernard Leheteren adiskide eta biak haren eskutik mesede hartzaile: Etxeparek liburua argitaratzeko, Marot-ek kenka eta estualdi larriren batean bizirik ateratzeko. Ez da, bada, harritzeko Etxeparek haren obra ezagutzea bien adiskide Leheteren bidez.

Bereiz dabilta halaber kritikoa Etxepareren obra poesia aldetik balioztateko orduan, Julio Urkixok eta, batez ere, Schuchardtek zinezko poetak behar dituen dohainetatik urrun ikusten duten bitartean, Gil Reicher andrea eta Mitxelena arras beste iritziko dira. Lehenaren hitzak dira hauek: «*Ces poesies sont empreintes d'un lyrisme, d'une passion, d'une force, que l'eskuara retrouvera rarement. Et je ne crois pas que ce soit un paradoxe de dire que notre premier poète basque est peut-être le plus grand*»^[5].

Mitxelenak bere aldetik, poeta izatea ez dela poesi mota honetaz edo hartaz baliatzea esan ondoren eta edozein hautaturik ere igo egin behar dela, «nork eta non ez dakigula ezarria dagoen maila batera igo», eta aldapa hori garaitzen ez duenak poetaren izena ez duela merezi, hau gaineratu zuen: «Nik uste dut, eta zenbat ere gehiago irakurtzen dudan are sendoago uste dut, gure Etxepare igo zela, zegokion neurrian eta begiz jo zuen bidez, diodan maila horretara eta iritzi hori berori dute oraingo gehienek»^[6].

Donibane Garazin edo inguruan sorturik, bere euskalki sortaldeko behenafarreraz baliatu zen; herri xeheak erabiltzen zuen bezalaxe baliatu, ordea, fonetikako bere berezitasunak ere euskara batuaren faboretan ez bada, euskara xahutuarenean bederen batere ukitu gabe. «Tampoco puede olvidarse», idatzi zuen Mitxelenak, «e/

carácter popular, natural por así decirlo, de la lengua de Dechepare»^[7].

Haren liburuko kantu guziak lau zatitan banatu ohi dira bere gaiaren arabera: erlijiozko bi, amodiozko hamar, libertatea goratzen duen bat eta euskara goraiatzeko bi azkenak. Zenbaitek Lafonekin uste dute izan zela agian lehenago beste edizio koskorrago bat, erabat galdua; hori pentsarazten baitu beste zantzu gehiagoren artean kantu multzo baten eta bestearen grafia ezberdinak, garai diferenteagatik baizik ezin izan daitekeenak. Dударик ez duen puntua da izan zela geroago beste edizio bat, 1967. urteaz gero bakarrik ezagutzen duguna, orduan baitzuen Pierre Lafittek argitara eman Arnaut Oihenarteren gutun bat (1665), ordu arte ezezaguna zena, eta han mintzo baita Zuberoako poeta ehun urte geroago edo Erroanen azalduko bigarren edizio, «*mais fort incorrecte*», batez^[8].

Liburuak ez dirudi hedadura handia izan zuenik, ikusirik batetik ale bakarra heldu zaigula mirakuloski, hori gabe ez baikenuen Etxepareren obra ezagutuko, eta bestetik ez zutela haren berri izan geroko zenbait idazlek, hala nola Pouvreauk, bai ordea Oihenartek, gainera lehen edizioaz ez ezik bigarrenaz, esan dugun bezala, bai eta Isastik (1625) ere; honen «*Compendio*» delakoa, ordea, ez baitzen 1850. urte arte argitaratu, lekukotasun hori ez zen barreiatu. Harritzekoago da Larramendik ez ezagutzea, bere Hiztegiko (1745) hitzaurreri sinesten badiogu, zeren han sartzen duen bera baino lehenagoko euskal idazleen zerrendan ez baitu aipatzen, eta Joanes Leizarraga baitauka ahoan XX. kapitulu osoan^[9], aurrekoan berak ezagutu omen dituen dozena bat euskal liburu inprimaturen izenak, Etxeparerena ez ordea, eman ondoren. Hainbatez harrigarriago da isiltze hori, zenbatez orduan Azkoitiko mediku zer Sarako Etxeberrik izan baitzuen nahi adina parada Loiolako jesuitari hori jakinarazteko. Ala Sarakoak ere ez zekien Etxepare izan zenik?

Hasierako hedadura txikia izan bazen, ezin daiteke gauza bera esan hurrengo mendeetan izan zuenaz, 1847an Francisque Michelek Brunet jauna mezutu zuenetik Parisko Biblioteka Nazionalean bazela euskal liburu zahar bat, inondik ere ezagutaraztea merezi zuena. «*Actes de l'Académie Royale des Sciences*» izeneko agerkarian ikusi zuen argia Jean B. Archuren itzulpen frantsesarekin. Hau ere hutsegitez josia, Vinsoni sinetsi behar badiogu, zein horrexegatik lehiatu baitzen edizio berri bat egitera Hovelacque-ren laguntzarekin; errakuntzarik gabe izatea erdietsi gabe, ordea, nahiz biziki nahi izan zuen izan zedin «*absolument conforme à la première de 1545*».

Etxepareren obra aztertuz orduarte egina zen lan guziaren gaindik nabarmentzea merezi du hizkuntzalari aleman Victor Stempf-en lan erraldoiak. Honek beste edizio orduarteko hoberenaz gain (1893) *Glossar* edo hiztegi bat ere moldatu zuen, Etxepareren obran agertzen diren hitz guziekin eta bakoitzaren argibide zehatz batekin. Mende honetan izan dituen beste lau argitarapen, honekin bost, — horietan guzietan lehena eta hobereña Urkixok 1933an faksimile gisa RIEVen eman zuena—, eta Ernst Lewyk eta batez ere René Lafonek, beste ezerk baino gehiago hizkuntzaren antzinatasunak erakarririk, egin zuten ikerlan eskerga kontuan edukirik, esan dezakegu oker aritzeko beldur handirik gabe liburuaren ezagupide filologikoak eta hizkuntzazkoak ez duela izkutuko zirkilurik gaurko hizkuntzalari batentzat.

Ez dirudi, aldiz, gauza bera esan dezakegunik ikerketen egoeraz ikuspuntu literariotik, zeren lehen aipaturiko hizkuntzalariak, Lafon izan ezik, ez baitzieten gogo eman hizkuntzaren atzean estaltzen zen poesiari eta egungo egunean ere ez baitio inork egin behar horri suharki ekin, behin betiko ikas dezagun ea gure lehen poetak merezi duen, guk uste bezala, zinezko poeten zerrendan agertzea ala ez. Hau egingo duenak, ordea, umetandik euskara edoski duen euskalduna izan beharko du nahitaez, bestek

nekez dastatu ahal izango baititu liburuaren bitxi baliotsuak, Van Eysek merezi onez azaldu zuen bezala: «*Pour ce qui regarde la valeur poétique des poésies de Dechepare, nous la laisserons à l'appréciation des Basques eux-mêmes*»; eta bera euskalduna ez izanik behar ez zuen egitekoan sartu zelakoxe, ez zen gai izan haietako poesia dastatzeko, eta hauek bezalako ez esatekoak esan zituen: «*on devra admettre, qu'il y a beaucoup de ses poésies qui ne sont ni élevées comme pensée ni correctes grammaticalement parlant*»^[10].

Euskal lehen obra izanagatik, esan bezala, izan bide zuen poetak herriaren tradizioko erlijio kantuetan iturburu oparoa, non edan. Hori erakusten digute Azkuek Zaraitzun eta aita Donostiak Otxagabian herriaren ahotik jaso zituzten zenbait bertsoak, herriak buruz mendeetan zehar gordeak, gure poetaren beste zenbait bertsoekin antz handia dutenak, edota, hobeto esan, hauek haiekin, eta poetak seguruenik harengandik ikasiak.

Y sin embargo el poeta tiene clara conciencia de ofrecer una auténtica primicia, como indica el título mismo del libro, *Linguae Vasconum Primitiae*, porque nadie antes que él ha compuesto, o al menos, impreso un libro en lengua vasca, lo cual lejos de enorgullecerle le causa sorpresa y admiración («*miraz nago*») al observar que ningún vasco, con haber entre ellos no pocos «diestros, valerosos y nobles», ha intentado antes demostrar a todo el mundo que la lengua vasca es tan apta como las demás para ser escrita, y al mismo tiempo la esperanza cierta de que «los venideros tengan motivo de perfeccionarla», por lo que no duda en prorrumper en este grito «*Heuskara, jalgi adi dantzara*».

Mitxelenak bestek ez bezala jakin zuen sentitzen eta hitz ederrez adierazten euskararen sarrera pozgarri eta dohatsu hau literaturaren munduan, idatzi zuenean: «Hizkuntza gutxik egin dute literaturan euskarak bezain sarrera pozgarria, Etxepare erretoreak dantzarako deia egin

zioanean. Honek (..) handiagorik egin zuen eta jakinaren gainean zegoen handiagorik egiten ari zela: berak zuela, alegia, euskara munduko plaza zabalera lehenbiziko aldiz agertzen. Eta bertsoei azken umil hura, “*debile principium melior fortuna sequatun*”, ezarri zienean, lehenengo mugarría jartzen zuela uste zuen noski, menderen mende luzatuz joango zen errenka baten lehenengo mugarría»^[11].

Buruko neke handiak eman ditu Bonapartez gero Etxepareren hizkuntzak Leizarragarenarekin konparatuz, edo, nahiago bada, honenak harenarekin, arkaismoa dela eta ez dela. Mitxelenak, egia, inoiz ez du bien arteko konparaziorik egiten eta absolutuki mintzo da Leizarragaren hizkuntzaren arkaismoaz. Badirudi halere Bonaparteri jarraituz Beraskoitzekoarenaren arkaismo handiagoren aldera lerratzen dela, Schuchardten hitz sonetu batzuk aipatzen dituenean, modu diskutigarrían, gure ustez^[12].

Izan ere, honek dioenean bere garaiko euskaldunentzat Leizarragaren hizkuntza garai bereko alemanentzat Lutherrena bezain arrotza dela, hori baizik esan nahiko ez balu, batetik gauza arrunta eta bistakoa lioke, Luther eta Leizarraga ia garaikide baitira, ez izanik beren artean 50 urteren aldea besterik; beraz gehiago nahi du esan. Bestetik ordea ez du nahi, gure ustez, Leizarragaren hizkuntzaren arkaikotasuna Etxeparerenaren gaindik goratu, ezpada, nolazpait esateko, bere burua zuritu, prestatzen ari den Testamentu Berria-ren edizio berria ez duelako bere garaiko hizkeraz eta grafiaz argitaratzeko asmoa, irakurle arruntak nahiko lukeen eta Intxauspek urte batzuk lehenago Axularren Gero egin zuen bezala, baizik jatorrizko testua zen bezalaxe ematekoa. Eta asmo honen aldeko arrazoi gisa aipatzen du, gure ustez, Leizarragaren hizkuntzaren antzinatasuna, zein ez baita Axularrena bezain malgua aldakuntzetarako, Lutherrena ere ez den bezalaxe, eta ez bailuke inork horrexegatik Luther argitaratuko hizkera eta grafía berrituz^[13].

Dena den, Lafon zartadakoa da gai horretan, Bonaparteren arrazoiak eztabaidatu ondoren, ondorioztatzen duenean: «*Dechepere est aussi archeissent, peut-être même plus, que Licerreque, et sa langue a beaucoup plus d'unité. Même si l'on ne possédait que les Linguae Vasconum Primitiæ, on pourrait se faire, grâce a Dechepare, une idée précise et sûre du système de la langue basque au XVI^e siècle*»^[14].

Bukatu baino lehen bi hitz Etxepareren metrikaz. Zuzen onez dio Lafonek euskal metrikak latinezko Erdi Aroko poesian dituela bere erroak^[15]. Liburuak bere baitan dituen hamabost kantuetatik lau izan ezik, gainerako guziak zesurak erdibitzen dituen zortzi eta zazpi silabako bi hemistikioz osaturiko bertso lerroz onduak omen dira, oraintsu arte euskal metrikaz arduratu diren aditu guziek, Oihenarte barne, aitortu duten bezala. Ekar gogora «*Tantum ergo sacramentum veneremur cernui*» bezalako eliz kanta. Mitxelena izan zen lehena konturatzen bi hemistikioek bazutela bere baitan haustura txiki bana eta hainbestez Etxepareren bertso horien eskema honako beste hau zela: 4/4//4/3. Orain arte gailen zen iritziaren kontra Jon Juaristik defendatu du berriki Etxepareren bertsoak erromantze generokoen pare direla, hortik egiaren antz gutxiko dirudien ondorio hau atereaz, hots, Etxepareren bertso lerro hauek hamasei silabakoak direla, azken silaba azentuduna omen dutelako^[16].

Alferrik esango du Oihenartek Etxepareren hamabost silabako bertso lerroak lehen ezezagunak zirela, are latinezko poesian^[17]. Hirugarren mendeko «*Tantum vini habet nemo quantum fudit sanguinis*», eliz kanta bateko «*Apparebit repentina dies magna Domini*» eta 738. urtean Milango katedrala sagaratu zeneko estrofak, honela hasten direnak: «*Rerum cernitur cunctarum inclita speciebus*» aski klar mintzo dira beren buruz. Ez zaigu eman, laburki bada ere, bertso gintza honen bereizgarriez hemen mintzatzea,

bestalde bertsolaritzaren berberak baitira, salbu hura idatzia izatea eta hau ez, nahiz honek baduen «bertso paperak» direlakoan ordaina ere.

Desira bat agertzea zilegi bada, ailitz omenaldi hau azken urteotan Euskal Filologian lizentziatu diren gure gazteen eta behialako ikertzaile sonatuen lehiakide izan nahiko duten euskalari arrotzen akuilu eta pizgarri, Etxepareren bibliografiak egun duen literatura aldetiko ikerketaren hutsarteak bete eta bere bertsoak esaeraz eta atsotitez zirtakatzen dituen herri poeta handia idoro lezaten!

Patxi ALTUNA

FAKSIMILEA

¶ Aduertant Impreffor, & lectores quod.z.nunquam
ponitur pro.m. Neq;.t. ante.i.pronunciatur pro.c. Et
vbi virgula ponitur ſub.ç.hoc modo quod fit dum præ
ponitur vocalibus.a.o.u.Tunc.c.pronunciabitur paulo
aſperius quam.z.vt in.ce.ci.



Rregueren aduocatu videzco eta noblea
 ri virthute eta honguciez complituyari
 bere iaun eta iabe Bernard Leheteri ber
 nard echeparecoac haren cerbitzari chi
 piac gogo honez goraynci baque eta of
 sagarri Ceren bascoac baitira abil animos eta gentil
 eta hetan içan baita eta baita sciencia gucietan lettratu
 handiric miraz nago iauna nola batere ezten assayatu
 bere lengoage propriaren fauoretan heufscaraz cerbait
 obra eguitera eta scributan imeitera ceren ladin publi
 ca mundu gucietara berce lengoagiac beçala hayn scri
 batzeco hondela. Eta causa honegatic guelditzenia a
 bataturic eceyn reputacione vague eta berce nacione
 oroc vste dute ecin densere scriba dayteyela lengoage
 hartan nola berce oroc baitu te scribatzen beryan Eta
 ceren oray çuc iauna noble et naturazcoac beçala bay
 tuçu estimatzen goratzen eta ohoratzen heufscara çu
 ri neure iaun eta iabia beçala igortendarauritzut heu
 scarazco copblabatzu ene ignoranciaren araura egui
 nac. Ceren iauna hayec iqhussiric eta corregituric pla
 zer duçun beçala irudi baçautzu imprimieraci diça
 çun eta çure escutic oroc dugum ioya ederra Impri
 mituric heufscara orano içan eztena eta çure hatse ho
 netic dadin aitzinerat augmenta continua eta publica
 mundu gucietara eta balcoec bercec beçala duten be
 re lengoagian scribuz cerbait doctrina eta plazer har
 ceco solaz eguiteco cantatzeco eta denbora igaraiteco
 materia eta ginendire nec gueto duten causa oboro ha
 ren abançatzeco eta obligatu guiren guciac geyncuari

A ij

**othoyz eguitera dizum mundu honeten prosperoqui
vicia eta bercian parabiçuya, Amen.**

